# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## OGASUN ETA FINANTZA SAILA ETA OSASUN SAILA

**396**

**12/1992 DEKRETUA, urtarrilaren 27koa, Osakidetza Erakunde Autonomoan Administrazio Kontratazioak egiteko Araubide Organikoa ezartzen duena.**

Osakidetzako Zerbitzu Nagusiak eta Osasun Alorrak organikoki egituratzen dituen uztailaren 23ko 439/1991 Dekretuaren eraginez, Erakunde Autonomoaren antalaketa eta iharduketaren eremuak elkarrengandik banatzeko printzipioa askoz indartsuago ageri da.

Xedapen horren bidez hasitako dinamikaren adierazpenik garrantzitsuenetako bat bere VI. Izenburuan agertzen da, hain zuzen, administrazio kontratazioen arloan zenbait Organori eskuduntzak ematekoa den horretan, Erakundeko Zuzendaritza Nagusian aurretik zegoen zentralizazioari amaiera ematen zaiolako era horretan.

Neurri horren arrazoiak dira, ez bakarrik Osakidetza sortzeari buruzko Legea egiteko argibide izan ziren printzipioak bete direla, baizik eta, eraginkortasun gehiagoz, Erakundeari agindutako kudeaketa aurrera eramateko gertatzen zaizkion oraingo gorabeheretan honakoak konstatatu direla: nabaria da Erakundeari atxikitako Osasun Zerbitzuek behar dituzten ondasun eta zerbitzuak kontratatzeko premia handiei erantzuteko iharduera erraldoitu egin dela.

Behin Kontratazioko zenbait Organo ezartzeko neurriak hartu eta gero, premiazkoa dute euron eskuduntzak burutzeko babes administratibozko egitura egokia eman dakiela. Ondorio hauetarako, argi eta garbi ikusten da oraingo Araubide Organikoa ez dela nahikoa, martxoaren 20ko 78/1984 Dekretuz sortutako Kontratazio Mahai bakar bat baino ez bait dauka Erakundeak.

Erakundearen egiturak aldatzeko azaldutako bideari jarraituz, Dekretu honen bidez, Osasun Alorretan Kontratazio Mahai berriak sortu eta Kontratazio Organo bat baino gehiago izatea lortu nahi da.

Era berean, kontuan hartuz ematen diren sorospenen berezitasunaren eraginez andeagarri edo erraz suntsitzeko moduko ondasun asko eta asko erabiltzen direla Erakundean, Erosketa Batzordeak sortzea xedatzen da, Kontratazio Mahaietatik bereizten diren Organo Kolejiatuak izanik, oinarri-oinarrian erosketen kudeaketa arrazionaltzea eta hobetzea lortzeko.

Azken batean, Osakidetza Erakunde Autonomoari atxikitako zentru guztientzako administrazio kontratazioko eremu juridiko homogeneizatzaile bat ematea da Xedapen honen helburua.

Horien indarrez, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordearen aldezko txostena jaso ondoren, Ogasun eta Finantza Sailburuak eta Osasun Sailburuak biok batera proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak urtarrilaren 27ko bileran aztertu eta onartu ondoren,

## DEPARTAMENTOS DE HACIENDA Y FINANZAS Y DE SANIDAD

**396**

**DECRETO 12/1992, de 27 de enero, por el que se establece el Régimen Orgánico de la Contratación Administrativa en el Organismo Autónomo Servicio Vasco de Salud/Osakidetza.**

El Decreto 439/1991, de 23 de julio, por el que se estructuran orgánicamente los Servicios Centrales y las Areas Sanitarias del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, representa un importante incremento de la presencia del principio de descentralización en los ámbitos de organización y funcionamiento del Organismo Autónomo.

Una de las más importantes expresiones de la dinámica emprendida por la citada Disposición se manifiesta en su Título VI, sobre atribución de competencias a distintos Organos en materia de contratación administrativa, concluyendo de este modo la preexistente centralización en la Dirección General del Organismo.

Se justifica tal medida, no sólo en la propia observancia de los principios inspiradores de la Ley de creación del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, sino, con mayor efectividad, en la constatación de las circunstancias actuales en las que se desenvuelve la gestión encomendada al Organismo, en la que destaca la existencia de una ingente actividad para atender las importantes necesidades de contratación de bienes y servicios que precisan los Servicios Sanitarios adscritos al mismo.

Una vez adoptada la medida de establecer varios Organos de Contratación, se hace preciso dotarles de la estructura de apoyos administrativos adecuada para el ejercicio de sus competencias. A estos efectos, se advierte a todas luces insuficiente el Régimen Orgánico actual, ya que el Organismo dispone de una única Mesa de Contratación creada por Decreto 78/1984, de 20 de marzo.

Con el objetivo de reforma de las estructuras del Organismo en la línea descrita, el presente Decreto viene a complementar la existencia de más de un Organo de Contratación con la creación de nuevas Mesas de Contratación en las Areas Sanitarias.

Asimismo, en atención a la especificidad propia de las prestaciones asistenciales, que exigen la utilización de gran cantidad de bienes consumibles o de fácil deterioro en el Organismo, se dispone la creación de Juntas de Compras, como Organos Colegiados diferenciados de las Mesas de Contratación con los que se pretende conseguir básicamente una racionalización y mejora de la gestión de compras.

En última instancia, la presente Disposición tiene como objetivo dotar al Organismo Autónomo Servicio Vasco de Salud/Osakidetza de un marco jurídico homogeneizador de la contratación administrativa en todos los centros adscritos al mismo.

En su virtud, previo informe favorable de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa, a propuesta conjunta de los Consejeros de Hacienda y Finanzas y de Sanidad, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del 27 de enero

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Osakidetza Erakunde Autonomoan Administrazio Kontratazioko Araubide Organikoa ezartzen da Dekretu honen bidez. Bere helburuen garapena zuzena eta eraginkorra izateko bearrezko administrazio kontratazio guztiak arautuko ditu, ondarezko kontratuetarako, arrisku-estaldurarako eta Euskadiko Ibilgailuen zerbitzua osatzen duten ibilgailuetarako ezarritako araubidearen kaltetan joan gabe.

*2. atala.*– 1.– Administrazio kontratazioaren gaiei buruz, hurrengo atalean adierazten denaren arabera eskudun izan daitezen kontratazio organoak baliatuko dira kredituak emateko eta erabiltzeko eskuduntzez, Jaurlaritzaren Kontseiluak edo Osasun Sailburuak gastuak onartzeari buruz aurrekontu legeek xedatzen dituzten mugen kaltetan joan gabe.

2.– Administrazio kontratazioaren gaiei buruzko betebeharrak kontratatzea honako hauek egingo dute:

a) Ekonomi Kudeaketarako Zuzendariak, edo kargua hutsik dagoelako edo berori kanpoan edo gaisorik dagoelako bere egitekoak betetzen dituen pertsonak, Erakunde Autonomoko Zerbitzu Nagusietarako onartutako aurrrekontu-mugen barruan.

b) Alorreko Zuzendari-Kudeatzaileek, edo kargua hutsik dagoelako edo beroiek kanpoan edo gaisorik daudelako euron egitekoak betetzen dituzten pertsonek, bakoitzaren Osasun Alorrerako onartutako aurrrekontu-mugen barruan.

c) Ospitaleko Zuzendari-Kudeatzaileek, edo kargua hutsik dagoelako edo beroiek kanpoan edo gaisorik daudelako euron egitekoak betetzen dituzten pertsonek, Zentrurako izendatutako aurrrekontu-mugen barruan.

d) Oinarrizko Sorospenerako Eskualde Zuzendariek, edo kargua hutsik dagoelako edo beroiek kanpoan edo gaisorik daudelako euron egitekoak betetzen dituzten pertsonek, bakoitzaren Osasun Eskualderako onartutako aurrrekontu-mugen barruan.

*3. atala.*– 1.– Estatuko Kontratuetarako Legeak eta administrazio kontratazioaren gaiei buruzko beste xedapenek ezartzen dutenez, Kontratazio Organoei datxezkien ahalmenez honako hauek baliatuko dira:

a) Osakidetzako Zuzendari Nagusia, edo kargua hutsik dagoelako edo berori kanpoan edo gaisorik dagoelako Ekonomi Kudeaketarako Zuzendaria, hasierako aurrekontuaren diru kopurua dela-eta, Osasun Sailburuaren edo Jaurlaritzaren Kontseiluaren aurretiko baimena beharrezkoa duten kontratuetan, baita aurrekonturik aurrez finkatu ezinezkoak diren kontratuetan eta gehienezko zenbatespenik eman ezin denean ere.

b) Ekonomi Kudeaketarako Zuzendaria honako kontratuak egiteko:

– Erakunde Autonomoko Zerbitzu Nagusiei egotzitako funtzioak betetzeko beharrezko obrak, ondasunak eta zerbitzuak.

– Informatikako ondasun eta zerbitzuei buruzko apirilaren 11ko 77/1983 Dekretuko 2. atalean sartzen diren kontratuak, aipatu Dekretuko 3. atalean ohartemandakoak hartuko bait dira hortakotzat, eta antzerako izaera duten beste guztiak.

– Kontratuen hasierako aurrekontua 50 milioitik gorakoa eta, Aurrekontu Legeen arabera, Osasun Sail-

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Por el presente Decreto se establece el Régimen Orgánico de la contratación en el Organismo Autónomo Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, que regirá para todas las contrataciones administrativas que sean precisas para el correcto y eficaz desarrollo de sus fines, sin perjuicio del régimen establecido para los contratos patrimoniales, de cobertura de riesgos y para los vehículos automóviles que integren el Parque Móvil de Euskadi.

*Artículo 2.*– 1.– Las competencias de autorización y disposición de créditos, en materia de contratación administrativa, serán ejercitadas por los órganos de contratación que resulten competentes de acuerdo con lo señalado en el artículo siguiente, sin perjucio de los límites que dispongan las leyes presupuestarias en cuanto a aprobación del gasto por el Consejo de Gobierno o el Consejero de Sanidad.

2.– La contracción de obligaciones, en materia de contratación administrativa, será ejercitada por:

a) Director de Gestión Económica, o persona que ejerza sus funciones en caso de vacante, ausencia o enfermedad, dentro de los límites presupuestarios aprobados para los Servicios Centrales del Organismo Autónomo.

b) Los Directores-Gerentes de Area, o personas que ejerzan sus funciones en caso de vacante, ausencia o enfermedad, dentro de los límites presupuestarios aprobados para el Area Sanitaria respectiva.

c) Los Directores-Gerentes de Hospital, o personas que ejerzan sus funciones en caso de vacante, ausencia o enfermedad, dentro de los límites presupuestarios consignados para el Centro.

d) Los Directores Comarcales de Atención Primaria o personas que ejerzan sus funciones en caso de vacante, ausencia o enfermedad, dentro de los límites presupuesarios aprobados para la Comarca Sanitaria respectiva.

*Artículo 3.*– 1.– Las facultades inherentes a los Organos de Contratación, según establecen la Ley de Contratos del Estado y demás disposiciones en materia de contratación administrativa, serán ejercitadas por:

a) El Director General del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza o el Director de Gestión Económica en caso de ausencia, vacante o enfermedad, en los contratos en que por razón de la cuantía de su presupuesto inicial sea precisa la autorización previa del Consejero de Sanidad o del Consejo de Gobierno, así como en aquellos en los que no sea posible la fijación previa de un presupuesto, ni siquiera con una estimación máxima.

b) El Director de Gestión Económica para contrataciones de:

– Obras, bienes y servicios precisos para atender las funciones encomendadas a los Servicios Centrales del Organismo Autónomo.

– Contratos incluidos en el artículo 2 del Decreto 77/1983, de 11 de abril, referidos a bienes y servicios informáticos, entendiéndose por tales los previstos en el artículo 3 del citado Decreto y cualesquiera otros de naturaleza análoga.

– Contratos cuyo presupuesto inicial sea superior a 50 millones e inferior a la cuantía que, según las Leyes

buruaren edo Jaurlaritzaren Kontseiluaren aurretiko baimenaren beharra eskatzen duen kopurua baino txikiagokoa denean.

– Manu honetan beste organo bati egotzi gabeko eskuduntzakoak diren kontratuak.

c) Alorreko Zuzendari-Kudeatzaileak, bakoitza bere Osasun Alorrean, kontratuen hasierako aurrekontua 50 milioitik gorakoa izan ez eta hurrengo hizkietan aipatutako organoetakoren bati berariz ez dagozkion eskuduntzakoak diren kontratuak.

d) Ospitaleko Zuzendari-Kudeatzaileak, bakoitza bere Zentru barruan, kontratuen hasierako aurrekontua 20 milioitik gorakoa ez denean.

e) Oinarrizko Sorospenerako Eskualde Zuzendariak, bakoitza bere Osasun Eskualde barruan, kontratuen hasierako aurrekontua 5 milioitik gorakoa ez denean.

2.– Aurreko zenbakian ezarritako kopuruak aldatzeko baimena eman ahal izango dio Osasun Sailburuak Osakidetzako Zuzendari Nagusiari, Aurrekontuetako Legeek xedatutako mugen barruan, manu hori zabal erabiltzeko edo zentru zehatz batzuetarako izan dadin.

3.– Atal honetako lehenengo idazatiaren b), c), d) eta e) hizkietan ohartemandako organoetan karguak hutsik daudenean edo titularra kanpoan edo gaisorik dagoenean, beroiei egotzitako eskuduntzak, aurkako Erabaki zehatzik ez badago, justu aurreko hizkian agertzen den organoak beteko ditu, Oinarrizko Sorospenerako Eskualde Zuzendarien kasuetan izan ezik, orduan bakoitzaren Osasun Alorreko Zuzendari-Kudeatzaileak ordezkatuko bait ditu.

4.– Aurreko atalean xedatutakoa horrela izan arren eta ondasun izaera edo beste gorabehera batzuk kontuan hartuz, Osakidetzako Zuzendari Nagusiak bere eskuduntzarako eska ditzake beste organo batzuri egotzitako kontratazioak.

*4. atala.*– Osakidetza Erakunde Autonomoak Kontratazio Mahai bat izango du Idazkaritza Nagusiari organo kolejiatu legez atxekita; honako kontratuetarako eskudun izango da:

a) Zerbitzu Nagusiei egotzitako eginkizunei erantzuteko beharrezkoak izan daitezenak, Erosketetarako Batzorde Nagusiarentzat gordetakoak izan ezik.

b) Osakidetzako ospitaletarako eta gainerako osasun erakundeetarako diren ondasun eta zerbitzu informatikoak kontratatzeari buruzko maiatzaren 8ko 129/1990 Dekretuak aipatzen dituenak.

c) Erosketa Batzordeei egotzi ez zaizkien guztiak, Ekonomi Kudeaketarako Zuzendariak edo Erakunde Autonomoko Zuzendari Nagusiak kontratazio organo legez badihardute horietan.

*5. atala.*– 1.– Aurreko atalean araututako Kontratazio Mahaia honako kideek osatuko dute:

a) Lehendakari bat.

b) Bokal bat.

c) Bokal-Letratu bat.

d) Bokal-Kontuhartzaile bat.

e) Idazkari bat; honek hizpidea izango du, baina botorik ez.

Erakunde Autonomoko Zuzendari Nagusiak izendatuko ditu Kontratazio Mahaia osatzen duten kideak,

Presupuestarias, determine la necesidad de autorización previa del Consejero de Sanidad o del Consejo de Gobierno.

– Contratos cuya competencia no se encuentre atribuida a otro órgano en este precepto.

c) Los Directores-Gerentes de Area dentro del Area Sanitaria respectiva, en contratos cuyo presupuesto inicial no exceda de 50 millones y no le corresponda la competencia de modo específico a alguno de los órganos señalados en las letras siguientes.

d) Los Directores-Gerentes de Hospitales, dentro de sus Centros respectivos, en contratos cuyo presupuesto inicial no exceda de 20 millones.

e) Los Directores Comarcales de Atención Primaria, dentro de la Comarca Sanitaria respectiva, en contratos cuyo presupuesto inicial no exceda de 5 millones.

2.– El Consejero de Sanidad podrá autorizar al Director General del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza a modificar las cuantías establecidas en el número anterior, con los límites que dispongan las Leyes Presupuestarias y con un carácter general o para centros concretos.

3.– En los casos de vacante, ausencia o enfermedad de los órganos contemplados en las letras b), c), d) y e) del apartado primero de este artículo, las competencias atribuidas a los mismos serán ejercitadas, salvo Resolución expresa en contrario, por el órgano que figura en la letra inmediata anterior, con excepción de los Directores Comarcales de Atención Primaria que serán sustituidos por el Director-Gerente del Area Sanitaria respectiva.

4.– No obstante lo dispuesto en el presente artículo y en razón de la naturaleza de los bienes u otras circunstancias, el Director General del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza podrá avocar para su competencia las contrataciones atribuidas a otros órganos.

*Artículo 4.*– El Organismo Autónomo Servicio Vasco de Salud/ Osakidetza tendrá como órgano colegiado adscrito a la Secretaría General una Mesa de Contratación, competente para las siguientes contrataciones:

a) Aquellas que se precisen para atender las funciones encomendadas a los Servicios Centrales, excepto las reservadas a la Junta Central de Compras.

b) Aquellas a que se refiere el Decreto 129/1990, de 8 de mayo, sobre contratación de bienes y servicios informáticos destinados a los Centros Hospitalarios y otras Instituciones Sanitarias del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza.

c) Todas aquellas, no atribuidas a las Juntas de Compras, en las que actúen como órgano de contratación el Director de Gestión Económica o el Director General del Organismo Autónomo.

*Artículo 5.*– 1.– La Mesa de Contratación regulada en el artículo anterior estará compuesta por los siguientes miembros:

a) Un Presidente

b) Un Vocal

c) Un Vocal-Letrado

d) Un Vocal-Interventor

e) Un Secretario, que tendrá voz, pero no voto.

Los miembros integrantes de la Mesa de Contratación serán nombrados por el Director General del

Bokal-Kontuhartzailea izan ezik, Osakidetzako Kontuhartzaileak izendatuko bait du azken hau.

2.– 4.b) atalean ohartemandako kontratuetarako, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saileko Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzako ordezkari batek parte hartuko du Bokal legez Mahai horretan; Zuzendaritza horretako Titularrak izendatuko du hori.

3.– Mahaiko Lehendakariak dei egin eta gero, kontratazioko zerbitzu sustatzailearen ordezkari batek bileretara joan ahal izango du; hizpidea izango du, baino botorik ez.

*6. atala.–* Osakidetzako Alorreko Zuzendaritza bakoitzean Kontratazio Mahai bat osatzen da; bakoitzaren Osasun Alorreko administrazio kontratuen espedienteetan izango ditu ahalmenak Mahaiak, Idazkaritza Nagusiari atxekitako Kontratazio Mahaiarentzat gordetakoak edo Dekretu honen indarrez sortutako Erosketa Batzordeentzakoak ez badira.

*7. atala.–* Alorreko Zuzendaritzako Kontratazio Mahai bakoitzak Erakundeko Idazkaritza Nagusiari atxekitako Mahaiarentzat ohartemandako moduko osakera berdin-berdina izango du; Alor bakoitzeko Zuzendari-Kudeatzaileak izendatuko ditu horko kideak, bertara atxekitako langileen artetik, eta Osakidetzako Kontuhartzaileak egingo du Bokal-Kontuhartzaileari dagokion izendapena.

*8. atala.–* Ogasun eta Finantza Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendariak erabaki dezake, egoki deritzonean, Kontratazio Zerbitzuko Bokal batek noiz parte har dezaken Dekretu honen indarrez sor daitezen Mahaietan, bai unean-uneango kontratuetarako bai orokorrak direnerako.

*9. atala.–* Honako hauek dagozkio Kontratazio Mahai bakoitzari:

a) Kontratazio espedienteetan jasotako agiriak egiaztatzea, indarrean dagoen arauteriaren arabera.

b) Kontratazio Organoari jasotzekoak diren derrigorrezko txostenak egitea, direla onartutakoen arteko lehiaketa eta enkanteetara aurrez onartzeko, direla prozedura mugatuz izapidatutako lehiaketa eta enkanteetan parte hartzeko aurretik egiten den haukeraketarako.

c) Jasotako eskaintzak eta lege mailako agiriak aztertzea, eta onargarri diren edo onartezinak diren erabakitzea.

d) Eskaintzak jendaurrean agertarazten direnean lehiatzaileek jar ditzaten arazoak erabakitzea.

e) Behin-behineko esleipena egitea eta, kasua bada, kontratuak esleitzeko proposamenak Kontratuetarako Organoari jasotzea.

f) Indarrean dagoen arauteriak agintzen dizkion beste eginkizun guztiak.

*10. atala.–* Kontratuetarako Oinarri-arau Teknikoen Pleguak eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguak Erakundeko zerbitzu eskudunek idatziko dituzte.

Erakunde Autonomoko Aholkularitza Juridikoak egingo du zuzenbideko informea.

*11. atala.–* Dekretu honen bidez sortutako Kontratazio Mahaien eskuduntzak, hurrengo Xedapen horietan

Organismo Autónomo, a excepción del Vocal-Interventor, que será nombrado por el Interventor en el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza.

2.– Para las contrataciones previstas en el artículo 4.b), formará parte asimismo de la Mesa como Vocal, un representante de la Dirección de Organización y Sistemas del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico, designado por el Titular de dicha Dirección.

3.– Previa convocatoria del Presidente de la Mesa podrá asistir a las reuniones un representante del servicio promotor de la contratación, con voz pero sin voto.

*Artículo 6.–* Se constituye en cada Dirección de Area del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza una Mesa de Contratación, con facultades en los expedientes de contratación administrativa del Area Sanitaria respectiva, no reservados a la Mesa de Contratación adscrita a la Secretaría General o a las Juntas de Compras que se crean en virtud del presente Decreto.

*Artículo 7.–* Cada Mesa de Contratación de Dirección de Area tendrá una composición idéntica a la prevista para la Mesa adscrita a la Secretaría General del Organismo, siendo nombrados sus miembros por el Director Gerente del Area respectiva entre el personal adscrito a la misma, y por el Interventor en el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, en cuanto al correspondiente Vocal-Interventor.

*Artículo 8.–* El Director de Patrimonio y Contratación del Departamento de Hacienda y Finanzas podrá resolver, cuando lo considere oportuno, que un Vocal perteneciente al Servicio de Contratación forme parte de las Mesas que se crean en virtud del presente Decreto, bien para contrataciones puntuales o con carácter general.

*Artículo 9.–* Corresponderá a cada Mesa de Contratación:

a) La verificación de los documentos que contiene el expediente de contratación, de acuerdo con la normativa en vigor.

b) La formulación de informes preceptivos a elevar al Organo de Contratación para realizar la admisión previa en los concursos y subastas con admisión previa, al igual que los previos para realizar la selección oportuna en los concursos y subastas que se tramiten por el procedimiento restringido.

c) Examen de la documentación jurídica y de las proposiciones recibidas, resolviendo sobre su admisibilidad o inadmisibilidad.

d) Resolución de las cuestiones que planteen los licitadores en el acto público de apertura de proposiciones.

e) Adjudicación provisional y en su caso elevación al Organo de Contratación de las propuestas de adjudicación de contratos.

f) Cuantas otras funciones le encomiende la normativa en vigor.

*Artículo 10.–* Los Pliegos de Bases Técnicas y Pliegos de Condiciones Administrativas Particulares de los correspondientes contratos serán redactados por los servicios competentes del Organismo.

El informe en derecho será emitido por la Asesoría Jurídica del Organismo Autónomo.

*Artículo 11.–* Las competencias de las Mesas de Contratación creadas por el presente Decreto se entende-

ezarritakoarén kaltetan ez doazela ulertu behar da:

- Teknologi balioa duten ondasun eta eskubideak erosteko araubideari buruzko otsailaren 28ko 33/1983 Dekretua.

- Informatitako ondasun eta eskubideak erosteari buruzko apirilaren 11ko 77/1983 Dekretua, maiatzaren 8ko 129/1990 Dekretuan xedatutakoa kontuan izanik, kasua bada.

- Ondasunen homologazio prozedurari eta erosketa bateratuari buruzko urriaren 24eko 230/1983 Dekretua, apirilaren 9ko 100/1984 Dekretuan xedatutakoa kontuan izanik, kasua bada.

*12. atala.*– Kontratazio Mahai berriak sortzeko eta, Osakidetzan gerta daitezkeen berregituraketen ondorioz, Dekretu honetan jasotako Mahaiak deuseztu edo aldatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Dekretua beharko da, Osasun Sailburuak eta Ogasun eta Finantza Sailburuak proposatuta, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordearen txostena aurretik dela.

*13. atala.*– 1.– Osakidetza Erakunde Autonomoko Erosketetarako Batzorde Nagusia sortzen da; Ekonomi Kudeaketarako Zuzendaritzaren menpean egongo da.

2.– Era berean, Alorreko Zuzendaritzetan eta Ospitaletan Erosketa Batzordeak sortzen dira.

*14. atala.*– 1.– Dekretu honek egozten dizkien eskuduntzak beteko dituzte Erosketa Batzordeek; ondasun kontsumigarriak edo erabiliaz erraz suntsitzen direnak erosteko kontratuei buruz izango dira horiek, bai osasun materialea izan, bai osasunarekin zerikusirik ez duen materialea izan. Jende guztiarentzat irekita dauden negozioetan egindako erosketa txikiak hortik kanpo uzten dira, baina indarrean dagoen legeriaren arabera egin beharko dira.

2.– Kasu bakoitzerako hurrengo atalek zehaztu dezaten eragin eremuaren arabera, honako eskuduntzak izango izango dituzte Erosketa Batzordeek:

a) Kontratazio Organoari aholkua ematea.

b) Kontratazio irekietan kontratuen esleipenerako proposamenak egitea.

c) Lehiaketa edo enkante bidez esleitu daitezen kontratuetan Kontratazio Mahai legez ihardutea.

*15. atala.*– 1.– Erakundearen Zerbitzu Nagusiei egotzitako eginkizunei erantzuteko behar izan daitezen kontratazio guztiak izango dira Erosketetarako Batzorde Nagusiaren ardura, baita Ekonomi Kudeaketarako Zuzendariak edo Erakunde Autonomoko Zuzendari Nagusiak kontratazio organo legez dihardutela egindako kontratazio guztiak ere.

2.– Aurreko idazatian aipatutako eskuduntzez aparte, Osakidetza Erakunde Autonomoa osatzen duten Zentru guztietako premien programazioa eta azterlana egitea ere Erosketetarako Batzorde Nagusiari dagokio.

*16. atala.*– Alorreko Zuzendaritzako Erosketa Batzordeek, Alor bakoitzeko Zuzendaritzari egotzitako eginkizunei erantzuteko beharrezko izan daitezen kontratazio guztien ardura izango dute, Erosketetarako Batzorde Nagusiarentzat gordeta ez badaude; hala ere, aurrekontuetan jarritako mugen barruan arituko dira; bestalde, Alor bakoitzaren Osasun Eskualdeetako zerbitzu guztien iharduerako beharrezko izan daitezen kontratazioak ere beroiek egingo dituzte, baina aurrekontuetan jarritako mugen barruan arituko dira.

rán sin perjuicio de lo establecido en las siguientes Disposiciones:

- Decreto 33/1983, de 28 de febrero, sobre régimen de adquisición de bienes y derechos de interés tecnológico.

- Decreto 77/1983, de 11 de abril, sobre adquisición de bienes y servicios informáticos, atendiendo en su caso a lo dispuesto en el Decreto 129/1990, de 8 de mayo.

- Decreto 230/1983, de 24 de octubre, sobre procedimiento de homologación y adquisición centralizada de bienes, atendiendo en su caso a lo dispuesto en el Decreto 100/1984, de 9 de abril.

*Artículo 12.*– La creación de nuevas Mesas de Contratación, así como la supresión o modificación de las recogidas en el presente Decreto, como consecuencia de futuras reestructuraciones del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, requerirá Decreto del Gobierno Vasco, a propuesta de los Consejeros de Sanidad y de Hacienda y Finanzas, previo informe de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa.

*Artículo 13.*– 1.– Se crea la Junta Central de Compras del Organismo Autónomo Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, dependiente de la Dirección de Gestión Económica.

2.– Asimismo se crean Juntas de Compras en las Direcciones de Area y en los Hospitales.

*Artículo 14.*– 1.– Las Juntas de Compras ejercerán las competencias que les atribuye el presente Decreto en relación con la contratación de suministros que se refieren a bienes consumibles o de fácil deterioro por el uso, tanto se trate de material sanitario como no sanitario. Quedan excluidos los suministros menores que se realicen en establecimientos abiertos al público, de conformidad con la legislación vigente.

2.– Corresponderá a las Juntas de Compras, con el alcance que en cada caso precisen los artículos siguientes, las competencias de:

a) Asesorar al Organo de Contratación.

b) Elevar propuesta de adjudicación de los contratos en las contrataciones directas.

c) Actuar como Mesa de Contratación en los contratos que se adjudiquen por concurso o subasta.

*Artículo 15.*– 1.– La Junta Central de Compras entenderá de aquellas contrataciones que se precisen para atender las funciones encomendadas a los Servicios Centrales del Organismo, así como de todas aquellas en las que actúen como órgano de contratación el Director de Gestión Económica o el Director General del Organismo Autónomo.

2.– Además de las competencias señaladas en el párrafo anterior, corresponderá a la Junta Central de Compras la programación y estudio de las necesidades de los distintos Centros que componen el Organismo Autónomo Servicio Vasco de Salud/Osakidetza.

*Artículo 16.*– Las Juntas de Compras de Dirección de Area entenderán de aquellas contrataciones, no reservadas a la Junta Central de Compras, que se precisen para atender las funciones encomendadas a la Dirección de Area respectiva, dentro de sus límites presupuestarios, así como de las que se precisen para el funcionamiento de todos los servicios de las Comarcas Sanitarias del Area respectiva, dentro de los límites de su presupuesto.

*17. atala.*– Ospitaleko Erosketa Batzordeek, bakoitzaren Ospitaleko zerbitzu guztien iharduerarako beharrezko izan daitezen kontratazioen ardura izango dute, Erosketetarako Batzorde Nagusiarentzat gordeta ez badaude, baina aurrekontuetan jarritako mugen barruan arituko dira.

*18. atala.*– 1.– Erosketa Batzorde bakoitzaren osakera 3 kidekoa izango da gutxienez.

2.– Osakidetzako Funtzionarien edo bertara atxekitako langilegoaren artetik izendatuko dira Erosketa Batzordeko kideak:

a) Erosketetarako Batzorde Nagusikoak, Ekonomi Kudeaketarako Zuzendariak izendatuko ditu.

b) Alorreko Zuzendaritzako Erosketa Batzordekoak, Osasun Alor bakoitzeko Zuzendari-Kudeatzaileak izendatuko ditu.

c) Ospitaleko Erosketa Batzordekoak, Ospitaleko Zuzendari-Kudeatzaileak izendatuko ditu.

*19. atala.*– Erosketa Batzordeek Kontratazio Mahai bezala ihardun dezatenean, aurreko atalean aipatutako kideez aparte, Aholkularitza Juridikoko ordezkari bat eta Osakidetzako Kontuhartzailetzako kide bat, berorrek izendatutakoa, nahitanahiez izango dira Batzorde horietako partaide.

*20. atala.*– 1.– Erosketa batzordeak kontrataziorako ahokulari bezala aritu daitezenean, Lehendakariak deituta elkartuko dira; deialdiarekin batera Eguneko Gai zerrenda joango da, eta gutxienez 48 orduko aurrerapenez emango die horren berri kide guztiei Idazkariak.

2.– Erosketa Batzordeak Kontratazio Mahai bezala aritu daitezenean, Kontratazio Mahaietarako orokorrean ezarritakoaren hildotik arautuko dira euron deialdiak, bilerak eta akordioak.

3.– Dena delako izaeraz iharduten dutela ere, Dekretu honetan oharteman gabekoetarako, Estatuko Kontratuetarako Legeaz eta Arautegiaz eta Administrazio Prozeduraren Legeko I. Izenburuko II. Atalburuan ezarritakoaz arautuko dira.

INDARGABETZE XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Osakidetzako Erakunde Autonomoan Kontratazio Mahai bat sortu zuen martxoaren 20ko 78/1984 Dekretua indargabetuta uzten da.

*Bigarrena.*– Indargabetuta uzten dira uztailaren 23ko 439/1991 Dekretuko VI. Izenburuko 54. eta 55. atalak eta ondoriorik gabe gelditzen da, halaber, Osakidetza Erakunde Autonomoak obra, ondasun eta zerbitzuen administrazio kontratazioa egiteari buruz Dekretu bereko V. Izenburuko 53. atalean xedatutakoa.

*Hirugarrena.*– Xedapen honetan ohartemandakoaren aurka dauden apirilaren 30eko 120/1985 Dekretuko eta 1985eko maiatzaren 8ko Aginduko manuak indargabe uzten, baita beronek dioenaren aurka dagoen beste arau guztiak ere.

*Artículo 17.*– Las Juntas de Compras de Hospitales entenderán de las contrataciones, no reservadas a la Junta Central de Compras, que se precisen para el funcionamiento de todos los servicios del Hospital respectivo, dentro de los límites de su presupuesto.

*Artículo 18.*– 1.– La composición de cada Junta de Compras será de 3 miembros al menos.

2.– Los miembros de la Junta de Compras serán designados, de entre Funcionarios o personal adscrito al Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, por:

a) Junta Central de Compras: por el Director de Gestión Económica.

b) Junta de Compras de Dirección de Area: por el Director Gerente del Area Sanitaria respectiva.

c) Junta de Compras de Hospital: por el Director Gerente del Hospital.

*Artículo 19.*– Cuando las Juntas de Compras actúen como Mesas de Contratación formarán necesariamente parte de ellas, además de los miembros citados en el artículo anterior, un representante de la Asesoría Jurídica, así como un miembro de la Intervención de Osakidetza designado por la misma.

*Artículo 20.*– 1.– Cuando las Juntas de Compras actúen como asesoras de la contratación se reunirán mediante convocatoria del Presidente, a la que se unirá el Orden del Día, que será dado a conocer por el Secretario a los diferentes componentes con una antelación mínima de 48 horas.

2.– Cuando las Juntas de Compras actúen como Mesas de Contratación, su régimen de convocatorias, reuniones y acuerdos se regirá por lo establecido con carácter general para las Mesas de Contratación.

3.– Cualquiera que sea el carácter con el que actúen, en lo no previsto en el presente Decreto, las Juntas de Compras se regirán por la Ley y el Reglamento de Contratos del Estado y por lo establecido en el Capítulo II del Título I de la Ley de Procedimiento Administrativo.

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

*Primera.*– Queda derogado el Decreto 78/1984, de 20 de marzo, por el que se creó una Mesa de Contratación en el Organismo Autónomo Servicio Vasco de Salud/Osakidetza.

*Segunda.*– Se deroga el Título VI, artículos 54 y 55, del Decreto 439/1991, de 23 de julio, quedando asimismo sin efecto, en materia de contratación administrativa de obras, bienes y servicios por el Organismo Autónomo Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, lo dispuesto en el Título V, artículo 53, del mismo Decreto.

*Tercera.*– Se derogan los preceptos del Decreto 120/1985, de 30 de abril, y de la Orden de 8 de mayo de 1985, que se opongan a lo previsto en la presente Disposición, así como cualquier otra norma que la contradiga.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Dekretua hau; eta indarrean jartzen den egunetik aurrera has daitezen kontratazio espediente guztiei ezarriko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko urtarrilak 27.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Finantza Sailburua,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.

Osasun Sailburua,
JOSE IGNACIO AZKUNA URRETA.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y se aplicará a todos los expedientes de contratación iniciados a partir de su entrada en vigor.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de enero de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Finanzas,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.

El Consejero de Sanidad,
JOSE IGNACIO AZKUNA URRETA.

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

397

4/1992 DEKRETUA, urtarrilaren 14ekoa, Valderejo-aldea Parke Naturaltzat jotzen duena.

Valderejo eskualdea Arabako mendebaldeko mugan dago eta bat dator Gaubea udalerriko Valderejo Administral Juntako mugekin, inguru haietako bazterren edertasuna mirestekoa da eta bertan bizi diren landare eta animaliak, mota askotarikoak direnak, gorde behar dugun aberastasuna da.

Herrialde mailako hirigune sozio-ekonomikoetatik at egoteak biztanleez gabetzea ekarri die oraindik dirauten herri txikiei eta batzutan, Villamardones eta Ribera adibide, erabateko hustuketa ere.

Eskualde hartan nekazaritza eta abeltzaintzatik bizi dira betidanik, baina orografia dela-kausa, eragozpenak izan dituzte handiak beren lana aurrera ateratzeko, horrexegatik hartu du Europako Ekonomi Elkarteak Mendiko Nekazaritzako Eskualdetzat.

Valderejo Parke Naturaltzat jotzearen bidez, eskualdeak dituen balio naturalak babestu nahi dira eta, aldi berean, bertan bizi diren gizalagunei berrindartze ekonomikoa txertatu nahi zaie.

Helburu horiek eskuratzeko dago, hain zuzen, Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamua, eskualdea ordenatzean erabiliko den tresna aurrerantzean; horregatik lehendik zeuden lurralde-araubideak moldatuko dira Egitamuaren aginduetara.

Valderejo Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamua onartzen duen urtarrilaren 14eko 3/1992 Dekretuak eskualde hura Parke Naturaltzat jotzeko baldintza betetzen du, «natur inguruneak eta basa-landaretza eta animaliak babesteko» den martxoaren 27ko 4/1989 Legeak, bere 15 atalean, ezarritako baldintza, alegia. Horrela, bada, borobiltzen da aipaturiko legean emandako agindua, hots, Valderejo aldeak babestarauak izatea.

Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamuan finkaturiko jarraibideak Parkea Erabili eta Kudeatzeko Egitamu

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

397

DECRETO 4/1992, de 14 de enero, por el que se declara Parque Natural el área de Valderejo.

El área natural de Valderejo, ubicada en la zona más occidental del Territorio Histórico de Alava, y coincidente en su delimitación con la Junta Administrativa de Valderejo, municipio de Valdegovía, destaca por la belleza de sus paisajes, así como por la singularidad y variedad de su flora y fauna.

El aislamiento de los centros socio-económicos regionales ha determinado que los pequeños núcleos urbanos existentes, en los que se concentra la escasa presencia humana de la zona, sufran un grave problema de despoblamiento, cuando no de total abandono, cual es el caso de Villamardones y Ribera.

Son aprovechamientos tradicionales de la zona los agrícolas y ganaderos aunque con grandes dificultades de producción por su situación geográfica, razones todas ellas que han determinado su declaración como zona de Agricultura de Montaña por la Comunidad Económica Europea.

La declaración de Valderejo como Parque Natural persigue de forma inmediata la protección de sus valores naturales, así como la recuperación económica y humana de las comunidades que la habitan.

A la consecución de dichos objetivos se dirije el plan de ordenación de los recursos naturales, auténtico instrumento de ordenación de la zona y que va a prevalecer sobre los instrumentos de ordenación territorial y física existentes al que necesariamente habrán de adaptarse.

La aprobación del plan de ordenación de los recursos naturales del área de Valderejo realizada por Decreto 3/1992, de 14 de Enero, cumple el requisito establecido en el artículo 15 de la Ley 4/1989, de 27 de marzo, de conservación de los espacios naturales y de la flora y fauna silvestres, para proceder a la declaración de dicha zona como Parque Natural. Se completa, así, el proceso requerido por dicha Ley para dotar al área de Valderejo de un régimen de protección.

Las directrices fijadas en el plan de ordenación de los recursos naturales habrán de ser desarrolladas en el